

GARI BERASALUZE

Elkano


Itsasoak
emandako bizitza



Mundua sagar bat da

*M*unduko zazpi itsasoetan barrena ibili eta sorlekura itzultzea da Getaria. Eta arrain errearen usaina. Lisboa euritsua euskal kostaldean. Senegal, Errumania, Kuba eta Argentina berriak gure artean. Haurrak portuan bainatzen. Hondartza. Zure larrua eguzkiari begira. Sareak. Harri bihurtutako balea. Elizako kanpaiak. Surflariak itsasora sartzen. Arrantzaleak itsasora ateratzen. Kresalaren izaretan bildutako kaleak. Izar gorriak dituzten itsasontziak. Teilatuak. Aldapak. Katuak. Tabernak. Batelak. Hori dena da Getaria. Munduari itzulia eman dioten marinelen herria. Itsasoak emandako maitalea. Noizbait itzuliko direnen azken portua.

Beharbada horregatik miretsiko dute Joan Sebastian Elkano getariarrek. Itzuli egin zelako. Bi estatua ditu herrian, eta monumentua, eta kalea. Batzuentzat, ez da harritzekoa. Duela bostehun



urte, munduari buelta eman eta abialekura itzul-tzea lortu baitzuen marinel hark, mundua zabala eta arrotza zen garaian.



Saso hartan, Portugalek eta Gaztelak, mundua bi zatitan banatzea erabaki zuten, sagar bat balitz bezala, bakoitzak bere zatia nahi zuen moduan irentsi ahal izateko. Bi zatietan lurralde eta uharte ezezagunak zeuden, eta haietan espeziak, elikagaiak, esklaboak edota urrea eskuratzeko, bidaia handiak antolatu eta egin zituzten itsasoetan barrena.

Espainia hegoalde-tik 1519an atera eta abialekura 1522an iritsi zen europarrentzat ordura arteko bidaia handiena izandakoa. Bost itsasontzi eta 265 lagun abiatu ziren, eta hiru urteren

buruan, itsasontzi bakarra itzuli zen, espeziaz beteta, bizirik irautea lortu zuten 18 marinelekin,

Elkano kapitainaren aginduetara. Eguzkiaren atzetik beti sartalderantz nabigatuz, itsasoak zeharkatu eta munduari buelta osoa eman zioten. Elkano-rekin iritsi zirenen artean, beste hiru euskal herritar zeuden: Joan Akurio, Joan Arratia eta Joan Zubilleta, Bermeo, Bilbo eta Barakaldoko marinelak, hurrenez hurren.

Oihartzun handiko bidaia izan zen hura garai hartan. Batetik, Amerika zeharkatzeko eta mendebalderantz aurrera egiteko modua aurkitu zutelako. Bestetik, bide hari segika espeziai betetako Moluka uharteetara iristea lortu zutelako eta, azkenik, eguzkiaren norabide berean nabigatuz, abialekura itzultzen asmatu zutelako. Bidaia hark, beraz, europarrentzat ezezagunak ziren bideak zabaldu zizkion merkataritzari eta zientziari.

Itzuli zirenen begiek isilpean oihukatzen zuten sekretua.

Mundua sagar bat da.

Getaria, itsasoari begira

Getaria, garai batean, Nafarroako Erresumaren porturik garrantzitsuenetakoa izan zen. Antso Jakitunak sortu zuen, XII. mendearen amaiera aldera, data zehatz ezagutzen ez badugu ere. Geroago, 1200. urtean Gaztelak indarrez hartu zituen Nafarroako Erresumaren zenbait lurralde, gaztelu eta hiribildu, eta haien artean baita Getaria ere.

Gaztelako errege Alfontso VIII.ak 1209an Getariari berretsi egin zion Nafarroako erregeak sorreran emandako forua, eta Getariako harresiak berreraikitzeke agindu zuen. Forua berresteak eta harresiak berreraikitzeke aginduak argi erakusten dute 1209 baino lehen ere sortuta eta harresiz bilduta zegoela Getaria, urte askoan besterik uste izan bada ere.

Ordurako, euskal kostaldeko beste zenbait herririk bezala, Getariak mende luzeetako eskarmen-tua zuen balea arrantzan. Balea zen garai hartako

ekonomiaren euskarri sendoenetakoa, ontziginzarekin eta komertzioarekin batera, eta balearen arrantzaren inguruan antolatzen zen kostaldeko herrietako lana eta bizimodua. Getariak, esaterako, Gaztelako erregearen baimena eskuratu zuen 1270ean, Gipuzkoako mendietan behar zituen zuhaitz guztiak mozteko, egurrarekin itsasontziak eta etxeak eraiki ahal izateko.

Euskal herritarrek balearen arrantzaz eta itsasoko kontuez zuten ezagutza sonatua zen Europa osoan, eta horri esker errespetatuak eta estimatuak ziren. Nazioarteko zenbait akordio ere izenpetu ahal izan zituzten gipuzkoarrek eta bizkaitarrek, erresumen arteko guduetatik eta erasoetatik salbuetsita geratzeko eta nabigazio komertzialaren inguruko kontuak hitzartzeko. Garai hartan, itsas merkataritzak egundoko garrantzia zuen, eta euskal kostaldeko zenbait portuk garapen ekonomiko handia izan zuten: Hondarribiak, Donostiak, Mutrikuk, Bermeok eta Getariak, esaterako.

Itsasontziak, merkataritzan eta arrantzan ibiltzeaz gain, gerrateetan parte hartzeko edota piratearian aritzeko ere alokatu ohi ziren. Baita marine-lak ere. Horrek, itsasontzien jabeak nabarmen aberastea ekarri zuen, eta kostaldeko herrietan alde handia sortu zen arrantzatik edo nekazaritza-tatik bizi ziren herritarren eta ontzien nagusien artean. Azken horien botereari aurre egiteko, marinelen

kofradiak sortu ziren. Betiko usadioaren arabera antolatu eta egituratutako elkarteak ziren kofradiak. Hasiera batean, itsasoko langileen interesak babesteko sortu ziren batez ere.

Haizea, ordea, ez zen beti alde izaten, eta batzuei zein besteei erasaten zien.

Konkistaren ondoren, euskal portuak Gaztelako erresumaren menekoak bihurtu ziren, eta probestuaren aginduak bete behar izaten zituzten. Probestua, erregeak lurralde bakoitzerako izendatzen zuen ordezkaria zen nolabait, eta zenbait eskubide ematearekin batera, hainbat arau, zerga eta baldintza ezartzen zizkien herriei eta herritarrei, gaur egun egin ohi den antzera. Getariarrek, esaterako, harrapatzen zuten lehen balearen erdia eman behar izaten zioten urtero probestuari.

1474ko azaroan, ordea, herriko kontzejuko 128 getariarrek uko egin zioten probestuari urteko lehen balearen erdia emateari. Ez zuten erregearen aginduak betetzeko asmorik. Azken hamarraldietan, suteek eta izurriteek erabat makurtuta utzi zuten Getaria, itsasoaren ekarraldiek hautsi egin zuten herria eta moila lotzen zituen galtzada, ez zen iristen hura konpontzeko erregeak agindutako laguntza, eta kaia isolatuta geratzeak makaldu egin zuen herriaren garapena, beste portu batzuen mesederako.

Gainbehera horri aurre egiteko, balearen arranzari eustea eta baleak zekarren aberastasun guztia egoki kudeatzea ezinbestekoa zen getariarrenzat. Balea zen kostaldeko ekonomiaren euskarririk garrantzitsuena, eta herrien artean lehia estua sortzen zen, balea nork lehenago ikusi eta harrapatu. Lehiakortasun haren oinordekoak dira gaur egungo arraunlariak eta estropadak.

Urtean hiruzpalau balea harrapatzen zituzten, eta haietako baten erdia erregearen ordezkariari ematea ez zitzaien zuzena iruditu getariarrei, ez behintzat galtzada konpontzeko laguntza heldu artean.

Eskribauaren aurrean sinatu zuten guztiek agiria, urtero harrapatutako lehen balearen erdia erregearen probestuari emateari uko egiten ziotela adieraziz.

Erdi Aroko intsumiso haien izenak gaur arte iritsi dira.

Domingo Sebastian Elkano zen haietako bat.

Katalina Porturen semea

*G*aur egun, inork ez du ezagutzen Katalina Portu. Haren izena arrotza da, baita getariarren-tzat ere. Inon ez da haren omenezko kalerik edo estatuarik, baina historia honetan berebiziko garrantzia du.

Domingo Sebastian Elkanorekin ezkondu zen, eta bederatzi seme-alaba izan zituen. Haien artean, Joan Sebastian Elkano, 1487 inguruan jaio zena, data zehatzik ezagutzen ez bada ere.

Dirudienez, Katalina Porturekin ezkondu eta zenbait urtera, gazte hil zen Elkanoren aita, eta alargun geratutako amak elikatu, hazi eta hezi behar izan zituen bederatzi haurrak, lan eta neke askorekin.

Dena dela, ez zen gaizki moldatuko, Elkanok hil baino zenbait egun lehenago idatzitako testamentuan ama behin baino gehiagotan baitu gogoan, ha-



ren magaletik jasotako guztia eskertu nahian nolabait.

Hil aurretik itsaso zabalean idatzitako testamentu hura da, zehazki, Elkanoren senideei eta ondasunei buruzko informazio iturri oparoena. Testamentu hari esker osatu ahal izan dira, hein handi batean, Elkanoren bizitzari buruzko hainbat kontu. Testamentu luze eta zehatz hura idatzi ez balu, eta gure eskuetaraino iritsi ez balitz, lan nekezagoa litzateke Elkanoren eta haren arbasoen historia ezagutzea.

Horrela ere, fama ekarri zion bidaiaria luzearen aurretik egin zuenaz ez da lerro askorik idatzi liburuetan, eta bidaiaren nondik norakoez gain ere, itzultzea lortu zuen kapitain haren bizitza nahikoa isilpean igaro da mendeetan barrena.

Elkanoren irudirik ere ez da iritsi guregana, eta Elkano marrazten ausartu diren pintore guztiek irudikatu egin behar izan dute. Ignazio Zuloagarena da, segur aski, Elkano ageri den koadro ezagunena. Koadro horren oinean honakoa idatzi zuen margolari zumaiarrak: «Honelakoa iruditzen zait izan beharko zukeela gure Sebastian Elkano handiak». Iruditzen zitzaion modukoa marraztu zuen hark ere, irudimena erabiliz, irudikatuz, benetako nolakoa izan zen asmatu nahian.

Irudirik ez, noski, baina Elkanoren testamentuak hainbat arrasto ditu lerro artean marinela hobeto ezagutzeko.

Arbasoak ere getariarrak zituen, esaterako, bertako parrokian ehortzita zeudela esaten baitu testamentuan. Zehazki, bere aldeko hileta elizkizunak eta urteurren mezak «nire aita eta arbasoak ehortzita dauden San Salvador elizan» egin zitezzen agindu zuen.

Aitaren aldetik jaso zuen abizenaren jatorria, Aia, Getaria eta Zarautz mugakide dituen Elkano auzoan dago. Bertako elizaren inguruan, *Elkano-goiena*, *Elkano-erdikoa* eta *Elkano-barrena* baserriak eraiki ziren noizbait, eta historialariek zehaztu dutenez, marinelaren ahaide zaharrenak *Elkano-goiena* baserrikoak ziren.

Elkanoren testamentuak, gainerakoan, haren ondasunen, izaeraren eta amodio kontuen berri ematen du oro har, eta aipatzen dituen jantziengatik, liburuengatik edota maitaleengatik sumatu daiteke nolakoa izan zen. Dena dela, testamentua irakurtzea norbaiten bizitzaren azken atala izan ohienez, hemen ere amaiera alderako utziko dugu Elkanoren azken borondatea.